Se tendrán en cuenta las calificaciones obtenidas hasta la fecha final del plazo de presentación de solicitudes. Cuando en la certificación académica, en todas o algunas de las asignaturas, no figure la calificación numérica recogida en el baremo del artículo 5.4 del Real Decreto 1125/2003, la calificación cualitativa se convertirá en numérica mediante el siguiente baremo:

Matrícula de Honor [10 puntos]
Sobresaliente [9 puntos]
Notable [7,5 puntos]
Aprobado [5,5 puntos]

3. No podrán dejarse vacantes plazas previamente ofertadas mientras existan solicitudes que cumplan los requisitos y hayan sido formalizadas dentro de los plazos establecidos para cada periodo.

Artículo 16. *Documentación.*

1. Junto con la solicitud de cambio de estudios, el solicitante deberá presentar la documentación necesaria para valorar el reconocimiento de créditos y para aplicar los criterios de adjudicación de plazas, entre la que necesariamente se incluirá aquella que acredite su nota de admisión a la universidad en el momento de acceder a los estudios desde lo que solicita el cambio, una certificación académica personal completa de los estudios universitarios cursados, en la que consten todas las asignaturas superadas, así como los programas de las asignaturas que se pretenda reconocer.

2. No será necesario presentar la documentación o certificación exigida en el apartado anterior cuando el estudiante proceda de la Universidad Pública de Navarra.

Artículo 17. *Publicación de la adjudicación de plazas*

Las relaciones de estudiantes admitidos por cambio de estudios en cada grado y, en su caso, las de los que quedan en las correspondientes listas de espera, se publicarán en el tablón electrónico de la Universidad. Esta publicación tendrá la consideración de notificación oficial a las personas interesadas, pero no generará en ningún caso efectos definitivos a favor de las mismas si la Universidad apreciase algún error, en cuyo caso se procedería a su modificación.

Artículo 18. *Reclamaciones.*

Los solicitantes que tras la publicación de la adjudicación de plazas aprecien algún error en las listas de admisión o de espera, podrán reclamar ante el Vicerrector con competencia en materia de

Batez besteko nota kalkulatzeko, eskaerak aurkezteko azken epea bukatu bitartean lortutako kalifikazioak hartuko dira kontuan. Ikasketa ziurtagirian, irakasgai batean edo guztietan, 1125/2003 Errege Dekretuaren 5.4 artikuluko baremoan adierazten den zenbakizko kalifikazioa azaltzen ez bada, kalifikazio kualitatiboa zenbakizko bihurtu behar da baremo honekin:

Ohorezko matrikula [10 puntu]
Bikain [9 puntu]
Oso ongi [7,5 puntu]
Nahiko [5,5 puntu]

3. Aldez aurretik eskainitako ikaspostuak ezin izanen dira hutsik utzi, baldintzak betetzen dituen eskaerarik baldin badago eta aldi bakoitzerako ezarritako epeetan formalizatu badira.

16. artikulua. *Dokumentazioa.*

1. Ikasketaz aldatzeko eskaerarekin batera, kreditu aitortpena balioesteko eta ikaspostuak esleitzeko irizpideak aplikatzeko beharrezko den dokumentazioa aurkeztu behar du eskatzaileak; besteak beste, nahitaezkoa da, aldaketa zein ikasketatik eskatzen duen, ikasketa horietan hasteko unean unibertsitatean onartua izateko nota egiaztatzen duen dokumentazioa, baita egindako ikasketen ziurtagiri pertsonal osatu bat ere. Bertan, gaitortutako irakasgai guztiak eta aitortu nahi diren irakasgaien programak azalduko dira.

2. Ikaslea Nafarroako Unibertsitate Publikotik badator, ez da beharrezkoa izanen aurreko apartatueta eskatzen den dokumentazioa edo ziurtagiria aurkeztea.

17. artikulua. *Ikaspostuen esleipena argitaratzea*

Gratu bakoitzean ikasketaz aldatzeagatik onartutako ikasleen zerrendak eta, bestela, itxarote zerrendetan gelditzen direnenak Unibertsitateko iragarki-oholean argitaratuko dira. Gratu bakoitzean onartutako ikasleen zerrenden argitalpena interesdunei egindako jakinarazpen ofizialtzat hartuko da, baina ez du sortuko inondik ere haien aldeko ondorio behin betikorik baldin eta unibertsitateak akatsen bat aurkitzen badu. Kasu horretan, aldatu egingo litzateke.

18. artikulua. *Erreklamazioak.*

Ikaspostuen esleipena argitaratu ondoren onartze edo itxarote zerrendetan akatsen bat aurkitzen duenak zilegi du hiru laneguneko epean ikasleen gaien eskumena duen errektoreordeari

estudiantes en el plazo de tres días hábiles. El motivo de las reclamaciones deberá ser justificado documentalmente.

CAPÍTULO VI Admisión por cambio de estudios universitarios extranjeros

• Capítulo VI ACG 10/09/2019

Artículo 19. *Quienes pueden solicitar admisión por cambio de estudios universitarios extranjeros.*

1. Podrán solicitar admisión las personas con estudios universitarios extranjeros parciales que deseen ser admitidos en estudios oficiales de grado de la Universidad Pública de Navarra y se les pueda reconocer un mínimo de 30 créditos.

2. También podrán solicitar la admisión las personas con estudios universitarios extranjeros finalizados que deseen ser admitidos en estudios oficiales de grado de la Universidad Pública de Navarra y se les pueda reconocer un mínimo de 30 créditos. En el caso de que el título obtenido pueda dar acceso en España a una profesión regulada sólo se aceptará si no se ha iniciado el trámite de homologación o si, en el caso de haberse iniciado, ha concluido con la denegación por el Ministerio competente.

3. Adicionalmente, deben acreditar una nota de admisión en el momento de ingresar en los estudios de procedencia superior o igual al 85% de la nota de corte resultante en el cupo general de admisión en el curso inmediatamente anterior en los estudios en los que desea ser admitido de la Universidad Pública de Navarra. Estas notas serán publicadas anualmente junto con las plazas ofrecidas en cada grado.

Los estudiantes que cursaron en sistemas educativos extranjeros sus estudios de acceso a la universidad deberán acreditar el cumplimiento de este requisito mediante la correspondiente credencial expedida por la UNED, en los términos recogidos en los apartados *d*, *e*, *f*, *g*, *h* e *i* del artículo 4 de la presente Normativa.

Los estudiantes con estudios universitarios extranjeros finalizados también podrán acreditar el cumplimiento de este requisito mediante la nota media de su expediente universitario, calculada con la fórmula contemplada en el apartado 2 del artículo 13.

4. En ningún caso podrán admitirse solicitudes de estudiantes cuyos estudios extranjeros incurran en alguna de las causas de exclusión del artículo 3 del Real Decreto 967/2014, de 21 de noviembre, por el que se establecen los requisitos y el

erreklamazioa aurkeztea. Dokumentuen bidez justifikatu behar da erreklamazioen arrazoia.

VI. KAPITULUA Atzerriko unibertsitate-ikasketaz aldatzeagatik onartua izatea

• VI Kapitulua GKE 2019/09/10

19. artikulua. *Nork eska dezakeen onar dezatela atzerriko unibertsitate-ikasketaz aldatzeagatik.*

1. Atzerriko unibertsitate-ikasketa partzialak dituzten eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan Gradu ikasketa ofizialetan onartuak izan nahi duten pertsonak, baldin eta 30 kreditu bederen aitortu badakizkieke.

2. Atzerriko unibertsitate-ikasketak bukatuta dituzten eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan Gradu ikasketa ofizialetan onartuak izan nahi duten pertsonak, baldin eta 30 kreditu bederen aitortu badakizkieke. Ikasleak lortutako tituluak Espainian lanbide erregulatu baterako sarbidea ematen badu, titulua homologatzeko tramitea hasi ez bada bakarrik onartuko da, edo tramite hori hasita ere ministerio eskudunak ezezkoa eman badio.

3. Horrez gainera, jatorrizko ikasketetan hasteko unean onarpen nota bat egiaztatu beharko du Nafarroako Unibertsitate Publikoan onartua izan nahi duen ikasketetan aurreko ikasturteko onartua izateko kupo orokorreko atalase-notaren % 85aren berdina edo handiagoa. Gradu bakoitzean eskainitako ikaspostuekin batera argitaratuko dira urtero nota horiek.

Unibertsitatean sartzeko ikasketak atzerriko hezkuntza sistemetan egin zituzten ikasleek betekizun hori betetzen dutela egiaztatu beharko dute UHUNek emandako egiaztagiraren bidez araudi honetako 4. artikuluko *d*, *e*, *f*, *g*, *h* eta *i* apartatuetan ezarritako moduan.

Atzerriko unibertsitate-ikasketak bukatuta dituzten ikasleek beren unibertsitate-espeditarean batez besteko notaren bidez ere egiazta dezakete betekizun hori betetzen dutela. Batez besteko nota 13. artikuluko 2. Apartatuan ezarritako formularen bidez kalkulatu da.

4. Inolaz ere ez dira onartuko 2014ko azaroaren 21eko 967/2014 Errege Dekretuaren 3. Artikuluak ezarritako baztertzeko arrazoiren bat daukatenak. Dekretu horren bidez ezartzen dira betebeharrak eta prozedura homologatzeko eta baliokidetzaz

procedimiento para la homologación y declaración de equivalencia a titulación y a nivel académico universitario oficial y para la convalidación de estudios extranjeros de educación superior, y el procedimiento para determinar la correspondencia a los niveles del marco español de cualificaciones para la educación superior de los títulos oficiales de Arquitecto, Ingeniero, Licenciado, Arquitecto Técnico, Ingeniero Técnico y Diplomado

5. Las personas a quienes no se reconozca el mínimo de 30 créditos referido en los apartados anteriores, podrán participar en el proceso general de admisión establecido en el Capítulo I de este reglamento.

6. No se admitirán cambios de estudios que comporten la necesidad de cursar asignaturas que no se impartan como consecuencia de la extinción del correspondiente plan de estudios.

Artículo 20 *Trámite de las solicitudes.*

1. Las solicitudes de admisión por cambio de estudios universitarios extranjeros se presentarán dentro de los plazos establecidos y de acuerdo con el procedimiento que la Universidad Pública de Navarra publicará anualmente.

2. Los solicitantes indicarán una única titulación en la que desean ser admitidos por cambio de estudios.

3. Sólo podrán ser objeto de valoración los requisitos académicos acreditados por los solicitantes a fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes establecido para cada periodo de admisión.

4. Se excluirán del procedimiento de adjudicación de plazas las solicitudes que no reúnan los requisitos exigidos, o que no vengán acompañadas de la documentación exigida.

Artículo 21. *Adjudicación de plazas.*

1. Cuando el número de solicitudes válidas supere al de plazas ofertadas, estas solicitudes se ordenarán según el resultado de la suma de la nota de admisión, calculada según lo establecido en el artículo 13.2, y de la nota media de los estudios universitarios cursados, ponderada conforme a lo dispuesto en el artículo 5 del Real Decreto 1125/2003 y de acuerdo con las tablas de equivalencia establecidas por el Ministerio competente en la materia.

2. No podrán dejarse vacantes plazas previamente ofertadas mientras existan solicitudes que cumplan

aitortzeko, unibertsitateko titulu ofiziala eta maila akademiko ofiziala izan daitezen, eta unibertsitateko atzerriko ikasketak baliokidetzeko, bai eta prozedura ere zehazteko zein den titulu ofizial hauen egokitasuna kualifikazioen Espainiako esparruen mailekin: arkitektoa, ingeniaria, lizentziaduna, arkitekto teknikoa, ingeniari teknikoa eta diplomaduna.

5. Aurreko apartatuetan adierazitako gutxieneko 30 kredituak aitortuta ez dituztenek zilegi izanen dute araudi honen I. kapituluaren ezarritako onartze prozesu orokorrean parte hartzea.

6. Ez da ikasketaz aldatzea onartuko baldin eta ikasketa plana iraungi delako dagoeneko irakasten ez diren irakasgaiak egin behar badira.

20. artikulua. *Eskaeren tramiteak.*

1. Atzerriko unibertsitate-ikasketaz aldatzeagatik onartua izateko eskaerak ezarritako epeetan eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak urtero argitaratuko duen prozeduraren arabera egin behar dira.

2. Ikasleek titulazio bakar bat adierazi behar dute, hau da, ikasketaz aldatzeagatik zein titulaziotan nahi duten onartuak izan.

3. Eskaerak aurkezteko onartzealdi bakoitzerako ezarritako epea bukatzen den egunean eskatzaileek egiaztatutako baldintza akademikoak hartuko dira kontuan, ez besterik.

4. Ikaspostuak esleitzeko prozeduratik kanpo geldituko dira baldintzak betetzen ez dituzten eskaerak edo eskatutako dokumentazioa erantsita ez dutenak.

21. artikulua. *Ikaspostuen esleipena.*

1. Baliozko eskaeren kopurua eskainitako ikaspostuena baino handiagoa bada, onarpen notaren baturaren eta egindako unibertsitateko ikasketen batez besteko notaren arabera ordenatuko dira eskaerak. Onarpen nota 13.2 artikuluan ezarritakoaren arabera kalkulatzen da, eta unibertsitateko ikasketen batez besteko nota 1125/2003 Errege Dekretuaren 5. Artikuluan ezarritakoaren arabera, gaian eskumena duen Ministerioak ezarritako baliokidetzataulekin bat etorriz.

2. Aldez aurretik eskainitako ikaspostuak ezin izanen dira hutsik utzi, baldintzak betetzen dituen

los requisitos y hayan sido formalizadas dentro de los plazos establecidos para cada periodo.

Artículo 22. *Documentación.*

Junto con la solicitud de cambio de estudios, el solicitante deberá presentar la documentación necesaria para valorar el reconocimiento de créditos y para aplicar los criterios de adjudicación de plazas, entre la que necesariamente se incluirá, en su caso, aquella que acredite su nota de admisión a la universidad en el momento de acceder a los estudios desde lo que solicita el cambio, una certificación académica personal completa de los estudios cursados, en la que consten todas las asignaturas superadas, así como los programas de las asignaturas que se pretenda reconocer.

Artículo 23. *Publicación de la adjudicación de plazas*

Las relaciones de estudiantes admitidos por cambio de estudios en cada grado y, en su caso, las de los que quedan en las correspondientes listas de espera, se publicarán en el tablón electrónico de la Universidad Pública de Navarra. Esta publicación tendrá la consideración de notificación oficial a las personas interesadas, pero no generará en ningún caso efectos definitivos a favor de las mismas si la Universidad apreciase algún error, en cuyo caso se procedería a su modificación.

Artículo 24. *Reclamaciones.*

Los solicitantes que tras la publicación de la adjudicación de plazas aprecien algún error en las listas de admisión o de espera, podrán reclamar ante el Vicerrector con competencia en materia de estudiantes en el plazo de tres días hábiles. El motivo de las reclamaciones deberá ser justificado documentalmente.

CAPÍTULO VII

Admisión de estudiantes que han obtenido un título oficial de grado en la Universidad Pública de Navarra, para realizar una nueva mención al título.

Artículo 25. *Admisión para realizar una nueva mención al título.*

1. Los estudiantes en posesión de un título oficial de Grado Universitario por la Universidad Pública de Navarra podrán solicitar su admisión para cursar una nueva mención del título de grado que poseen, en los plazos que determine la Universidad para cada curso académico.

eskaerarik baldin badago eta aldi bakoitzerako ezarritako epeetan formalizatu badira.

22. artikulua. *Dokumentazioa.*

Ikasketaz aldatzeko eskaerarekin batera, kreditu aitortpena balioesteko eta ikaspostuak esleitzeko irizpideak aplikatzeko beharrezko den dokumentazioa aurkeztu behar du eskatzaileak; besteak beste, nahitaezkoa da, aldaKeta zein ikasketatik eskatzen duen, ikasketa horietan hasteko unean unibertsitatean onartua izateko nota egiaztatzen duen dokumentazioa, egindako ikasketen ziurtagiri pertsonal osatu bat ere. Bertan, gainditutako irakasgai guztiak eta aitortu nahi diren irakasgaien programak azalduko dira.

23. artikulua. *Ikaspostuen esleipena argitaratzea*

Gradu bakoitzean ikasketaz aldatzeagatik onartutako ikasleen zerrendak eta, bestela, itxarote zerrendetan gelditzen direnenak Nafarroako Unibertsitate Publikoko iragarki oholean argitaratuko dira. Gradu bakoitzean onartutako ikasleen zerrenden argitalpena interesdunei egindako jakinarazpen ofizialtzat hartuko da, baina ez du sortuko inondik ere haien aldeko ondorio behin betikorik, baldin eta unibertsitateak akatsen bat aurkitzen badu. Kasu horretan, aldatu egingo litzateke.

24. artikulua. *Erreklamazioak.*

Ikaspostuen esleipena argitaratu ondoren onartze edo itxarote zerrendetan akatsen bat aurkitzen duenak zilegi du hiru laneguneko epean ikasleen gaien eskumena duen errektoreordeari erreklamazioa aurkeztea. Dokumentuen bidez justifikatu behar da erreklamazioen arrazoia.

VII. KAPITULUA

Nafarroako Unibertsitate Publikoan Graduak titulatu ofizial bat lortu duten eta tituluaren beste aipamen bat egin nahi duten ikasleak onartzea.

25. artikulua. *Tituluaren beste aipamen bat egiteko onartua izatea.*

1. Nafarroako Unibertsitate Publikoko unibertsitateko Graduak titulatu ofizial bat duten ikasleek zilegi dute beren Graduak titulatuaren beste aipamen bat egiteko eskatzea, Unibertsitateak ikasturte bakoitzerako ezarritako epeetan.

2. Las solicitudes se ordenarán aplicando el criterio de valoración de la nota media del expediente universitario del grado en el que desean cursar una nueva mención, calculada de acuerdo con lo establecido en el artículo 5 del Real Decreto 1125/2003, de 5 de septiembre, por el que se establece el sistema europeo de créditos y el sistema de calificaciones en las titulaciones universitarias de carácter oficial y validez en todo el territorio nacional, expresada con tres cifras decimales, redondeada a la milésima más próxima y en caso de equidistancia a la superior.

3. Las relaciones de estudiantes admitidos para realizar una nueva mención al título y, en su caso, las de los que quedan en las correspondientes listas de espera, se publicarán en el tablón electrónico de la Universidad. Esta publicación tendrá la consideración de notificación oficial a las personas interesadas, pero no generará en ningún caso efectos definitivos a favor de las mismas si la Universidad apreciase algún error, en cuyo caso se procedería a su modificación.

• [art. 25.3 ACG 10/09/2019](#)

CAPÍTULO VIII

Medidas para favorecer la admisión en determinadas situaciones excepcionales.

• [Capítulo VIII ACG 31/01/2019](#)

Artículo 26. *Trámite de las solicitudes de admisión en determinadas situaciones excepcionales.*

1. Se tramitarán según lo previsto en los siguientes apartados las solicitudes de admisión de estudiantes matriculados en otra universidad que deban cambiar residencia por hallarse en alguna de las siguientes situaciones:

a) Víctimas de violencia de género en virtud de sentencia condenatoria, orden de protección, resolución judicial que acuerde medidas cautelares para la protección de la víctima o, excepcionalmente, informe del Ministerio Fiscal que indique la existencia de indicios de que la demandante es víctima de violencia de género hasta tanto se dicte la orden de protección. También serán aplicables a los hijos e hijas dependientes de la víctima.

b) Graves problemas de salud o de seguridad del estudiante o de algún miembro de su unidad familiar, que hayan incapacitado al estudiante para continuar sus estudios con normalidad. Esta circunstancia se deberá acreditar de alguna de estas maneras: certificación médica oficial emitida por médico de la Red de Salud Pública especialista del área de la enfermedad de que se trate en el caso de problemas de salud, y resolución judicial, certificación del proceso judicial en curso o informe

2. Eskaerak ordenatzeko aipamen berri bat egin nahi duten Graduako unibertsitateko espedientearen batez besteko notaren balioespen irizpidea aplikatuz ordenatuko dira, kredituen sistema europarra eta lurralde nazional osoan ofizialak eta baliodunak diren unibertsitate titulazioetako kalifikazio sistema ezartzen duen 1125/2003 Errege Dekretuko 5. artikulua ezartzen duenarekin bat etorritik. Batez besteko nota hiru zifra dezimalekin adierazi behar da, eta milaren hurbilenarekin biribildu, eta distantziakidea bada, goiko milarenarekin.

3. Tituluari aipamen berri bat egiteko onartutako ikasleen zerrendak eta, bestela, itxarote zerrendetan gelditzen direnak Unibertsitateko iragarki-oholean argitaratuko dira. Gradu bakoitzean onartutako ikasleen zerrenden argitalpena interesdunei egindako jakinarazpen ofizialtzat hartuko da, baina ez du sortuko inondik ere haien aldeko ondorio behin betikorik baldin eta unibertsitateak akatsen bat aurkitzen badu. Kasu horretan, aldatu egingo litzateke.

• [25.3 art. GKE 2019/09/10](#)

VIII. KAPITULUA

Ikasleak zenbait egoera berezitan onar daitezela errazteko neurriak

• [VIII Kapitulumua GKE 2019/01/31](#)

26. artikulua. *Zenbait egoera berezitan onartua izateko eskaeren tramiteak*

1. Datozen apartatuetan ezarritakoari jarraikiz tramitatuko dira beste unibertsitate batzuetan matrikulaturik egonda bizilekuz aldatzeko premia duten ikasleen eskaerak, baldin eta egoera hauetakoren batean badaude:

a) Genero-indarkeriaren biktimak, tartean direnean honakoetako bat: kondena-epaia, edo biktima babesteko kautelazko neurriak hartzea erabakitzen duen babes agindua edo ebazpen judiziala, indarrean dagoena, baita, salbuespen gisa, eskatzailea genero-indarkeriaren biktimatzat hartzeko susmoak daudela adierazten duen fiskaltzaren txostena, babeserako agindua eman bitartean. Biktimaren menean bizi diren seme-alabei ere aplikatuko zaizkie neurriak.

b) Ikaslearen edo haren familia unitateko beste norbaiten osasun-arazoak edo segurtasunekoak, ikaslea ezindu badute ikasketekin normal segitzeko. Honela egiaztatu behar da: osasun-arazorik izanez gero, gaixotasunaren arloko ziurtagiri mediko ofiziala aurkeztu behar da, osasun publikoaren sareko mediku espezialista batek emana; segurtasun-arazorik izanez gero, berriz, ebazpen judiziala, martxan den prozesu

oficial de los Cuerpos y Fuerzas de Seguridad del Estado en el caso de problemas de seguridad.

c) Deportistas de alto nivel o de alto rendimiento que justifiquen el cambio de residencia por motivos deportivos.

2. Los estudiantes indicados en el apartado anterior podrán solicitar la admisión por el procedimiento de cambio de estudios universitarios españoles o extranjeros, fuera de los plazos a que se refieren los artículos 14 y 20 de la presente normativa. Sólo podrá ser considerada su solicitud en el caso de que, de haberlo pedido dentro del plazo, hubiera podido ser admitida en la correspondiente titulación, tras verificar el cumplimiento de los requisitos previstos en los artículos 13 y 19, y aplicar los criterios de adjudicación de plazas previstos en los artículos 15 y 21.

• [art. 26.2 ACG 10/09/2019](#)

3. Si no cumplen los requisitos para ser admitidos según lo previsto en el apartado anterior, podrán solicitar la admisión por el procedimiento general, fuera de los plazos a que se refiere el artículo 9 de la presente normativa. Sólo podrá ser considerada su solicitud en el caso de que, de haberlo pedido dentro del plazo, hubiera podido ser admitida en la correspondiente titulación, tras aplicar los criterios de adjudicación de plazas previstos en el artículo 10.

4. El Vicerrectorado competente en materia de admisión valorará las circunstancias excepcionales que concurren en cada caso, así como la disponibilidad de plazas en el momento de presentar la solicitud de admisión y, oído el centro correspondiente de la Universidad Pública de Navarra, podrá resolver la admisión en cualquier momento del curso académico.

Disposición adicional primera. *Procedimiento de admisión de estudiantes que desean realizar el Curso de Adaptación al Grado.*

1. Los estudiantes en posesión de un título oficial español de diplomatura o ingeniería técnica podrán solicitar su admisión para realizar los créditos complementarios para obtener el correspondiente título oficial de grado universitario, en los plazos que establezca anualmente la Universidad.

2. Para cada curso académico, y a propuesta de los centros de la Universidad Pública de Navarra, el Consejo de Gobierno, antes de comenzar el plazo para la presentación de solicitudes, determinará para cada titulación el cupo de plazas para los cursos de adaptación para titulados de anteriores planes de estudios.

judicialaren ziurtagiria edo Estatuko Segurtasun Indarren eta Kidegoen txosten ofiziala.

c) Goi mailako edo errendimenduko kirolariak, bizilekuz kirol-arrazoiengatik aldatu direla frogatzen badute.

2. Aurreko apartatuan adierazten diren ikasleek zilegi dute epez kanpo aurkeztea -araudi honen 14. eta 20. artikuluetan ezarritako epetik kanpo-Espainiako edo atzerriko unibertsitate-ikasketaz aldatzeagatik prozeduraren bidez onartuak izateko eskaera. Haien eskaera aintzat hartzeko baldintza hau da: eskaera epe barnean eskatu izan balute, titulazioan onartzeko aukera izatea, 13. eta 19. artikuluetan ezarritako betekizunak betetzen direla egiaztatu eta gero eta 15. eta 21. artikuluetan ezarritako ikaspostuak esleitzeko irizpideak aplikatu eta gero.

• [26.2 art. GKE 2019/09/10](#)

3. Aurreko apartatuaren arabera titulazioan onartzeko baldintzak betetzen ez badituzte, prozedura orokorraren bidez egin behar dute eskaera, araudi honetako 9. artikuluan ezarritako epeetatik kanpo. Haien eskaera aintzat hartzeko baldintza hau da: eskaera epe barnean eskatu izan balute, titulazioan onartzeko aukera izatea, 10. artikuluetan ezarritako ikaspostuak esleitzeko irizpideak aplikatu eta gero.

4. Ikasketetan onartzeko gaietan eskumena duen Errektoreordetzak baloratuko du kasu bakoitzean nolakoa den aparteko egoera eta onarpen-eskaera aurkezten denean zenbat ikaspostu gelditzen diren libre. Titulazioaz arduratzen den NUPeko ikastegiari entzun ondoren, ikaslea onartzea erabaki dezake ikasturteko edozein unetan.

Lehen xedapen gehigarria. *Gradura Egokitzeako Ikastaroa egin nahi duten ikasleak onartzeko prozedura.*

1. Diploma edo ingeniari tekniko Espainiako titulu ofizial bat duten ikasleek zilegi dute onartatela eskatzea, dagokion Gradu unibertsitate titulu ofiziala lortzeko beharrezko kreditu osagarriak egiteko, Unibertsitateak urtero ezartzen dituen epeetan.

2. Gobernu Kontseiluak, ikasturte bakoitzean, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikastegiak proposatuta, eskaerak aurkezteko epea ireki baino lehen, aurreko ikasketen planetak tituladunentzako egokitze ikastaroetarako ikaspostuen kupoa ezarriko du titulazio bakoitzerako.

3. Las solicitudes se ordenarán aplicando los criterios establecidos en la memoria verificada del grado que desean cursar, en el caso de que éstas superen el cupo de plazas a que se refiere el apartado anterior.

Disposición adicional segunda. *Estudiantes que deben superar requisitos formativos complementarios para la homologación de su título extranjero.*

1. Los estudiantes en posesión de un título universitario extranjero a los que se ha exigido la superación de requisitos formativos complementarios para su homologación por un título español de grado, pueden solicitar la realización de cursos tutelados para subsanar las carencias formativas advertidas, en los plazos establecidos anualmente por la Universidad.

2. El Consejo de Gobierno establecerá anualmente los cupos de plazas por titulación para realizar cursos tutelados.

3. Las solicitudes se ordenarán aplicando el criterio de valoración del menor número de créditos ECTS de las materias o asignaturas que el estudiante debe superar para la homologación, obteniendo plaza los estudiantes a los que les resten menos créditos ECTS para la finalización de los estudios de grado

Disposición adicional tercera. *Reanudación de estudios abandonados.*

1. Los estudiantes que hayan abandonado temporalmente los estudios iniciados en la Universidad Pública de Navarra y deseen reanudarlos, deberán solicitarlo en los plazos establecidos anualmente por la Universidad, siempre que no incumplan la normativa de permanencia. La reanudación de los estudios abandonados no computa como plaza de nuevo ingreso.

2. Si los estudios abandonados continúan impartándose, los estudiantes recibirán cita para formalizar su matrícula en el plazo que se establezca.

3. Si los estudios abandonados están extinguidos, el estudiante deberá solicitar primero la adaptación de sus estudios al nuevo grado universitario que se encuentre vigente. En el caso de que los estudios extinguidos no hayan sido sustituidos por una nueva titulación de grado, no será posible la reanudación de los estudios abandonados.

Disposición transitoria primera. *Estudiantes a los que les es de aplicación la disposición transitoria*

3. Ikasleek egin nahi duten graduaren txosten egiaztatuan ezarritako irizpideak aplikatuz ordenatuko dira eskaerak, baldin eta aurreko apartatuan aipatzen den ikaspostu kupoa gainditzen badute.

Bigarren xedapen gehigarria. *Beren atzerriko titulua homologatzeko prestakuntzako eskakizun osagarriak gainditu behar dituzten ikasleak.*

1. Atzerriko unibertsitateko titulu bat daukaten eta Espainiako graduako titulu batekin homologatzeko prestakuntza-baldintza osagarriak gainditu behar dituzten ikasleentzat zilegi da tutoretzapeko ikastaroak egiteko eskatzea, dituzten prestakuntza gabeziak zuzentzeko, Unibertsitateak urtero ezarritako epeetan.

2. Gobernu Kontseiluak urtero ezarriko ditu titulazio bakoitzeko ikaspostu kupoak, tutoretzapeko ikastaroak egiteko.

3. Ikasleak homologaziorako gainditu behar dituen gai edo irakasgaien ECTS kreditu kopuru txikiaren balioespen irizpidea aplikatuz ordenatuko dira eskaera, eta graduako ikasketak amaitzeko ECTS kreditu gutxiago dituzten ikasleek lortuko dute ikaspostua.

Hirugarren xedapen gehigarria. *Utzitako ikasketak berriz hastea.*

1. Nafarroako Unibertsitate Publikoan hasitako ikasketak aldi baterako utzi dituzten eta ikasketa horiekin berriz jarraitu nahi duten ikasleek eskaera aurkeztu beharko dute Unibertsitateak urtero ezarritako epeetan, baldin eta iraupen arauak urratzen ez badituzte. Utzitako ikasketekin berriz hastea ez da sarrera berriko ikaspostu gisa zenbatzen.

2. Utzitako ikasketak ematen jarraitzen badute, ikasleei hitzordu bat emanen zaie, ezarritako epean matrikula egiteko.

3. Utzitako ikasketa iraungita badaude, ikasleak bere ikasketak indarrean den unibertsitateko gradura egokitzeko eskatu beharko du lehenbizi. Iraungitako ikasketen ordezkari graduako titulazio berri bat ezarri ez bada, ezin izanen da utzitako ikasketekin berriz jarraitu.

Lehenbiziko xedapen iragankorra. *2016ko abenduaren 22ko ECD/1941/2016 Aginduen*

única de la orden ECD/1941/2016, de 22 de diciembre.

Para el acceso a los estudios universitarios oficiales de grado, estos estudiantes no necesitarán superar la EvAU en los términos recogidos en la Orden ECD/1941/2016, de 22 de diciembre. En este caso no será de aplicación la fórmula para el cálculo de la nota de admisión recogida en el artículo 3, siendo su nota de admisión la calificación final obtenida en el Bachillerato.

No obstante lo anterior, estos estudiantes podrán presentarse a la fase obligatoria y voluntaria de la EvAU en condiciones análogas a las de los estudiantes de Bachillerato LOMCE.

En el caso de presentarse a la EvAU y no superarla, estos estudiantes mantendrán su acceso a los estudios universitarios oficiales de grado conforme al primer párrafo de la presente disposición transitoria. Su ordenación en el proceso de adjudicación de plazas se ajustará a lo previsto en el artículo 5.4 para los estudiantes a los que se refieren los apartados *g* e *i* del artículo 4 de esta normativa.

Disposición transitoria segunda. *Estudiantes que superaron materias de la Fase Específica de la PAU en el curso 2015-2016.*

En atención a lo establecido en la disposición adicional tercera del Real Decreto 412/2014, de 6 de junio, a las materias superadas en la Fase Específica de la Prueba de Acceso a la Universidad en las convocatorias de ordinaria y extraordinaria de 2016 les serán de aplicación, exclusivamente para la admisión a estudios oficiales de grado en el curso académico 2017-2018, los parámetros de ponderación que les fueron aplicables para la admisión al curso 2016-2017.

Disposición transitoria tercera. *Titulaciones que puede señalar el estudiante en su preinscripción para el curso 2017-2018.*

Los estudiantes que se preinscriban en el curso 2017-2018 para iniciar estudios oficiales de grado, podrán señalar un máximo de seis titulaciones.

Disposición derogatoria única. *Derogación normativa.*

Quedan derogadas todas aquellas normas de igual o inferior rango que se opongan a lo establecido en el presente acuerdo. En particular, quedan derogados:

- El acuerdo del Consejo de Gobierno de aprobación de las normas reguladoras del

xedapen iragankor bakarra aplikatu behar zaien ikasleak.

Graduko unibertsitate-ikasketa ofizialetan sartzeko, ikasle hauek ez dute USE proba gainditu behar 2016ko abenduaren 22ko ECD/1941/2016 Aginduan adierazitako baldintzetan. Kasu horretan, ez da aplikatu behar 3. artikuluan jasotako formula -ikasketetan onartua izateko nota kalkulatzekoa-; Batxilergoan lortutako azken kalifikazioa izanen da ikasketetan onartua izateko nota.

Hala eta guztiz ere, ikasle hauek aukera dute USEaren nahitaezko fasera eta USEaren borondatezko fasera aurkezteko, LOMCE Batxilergoan egin dutenen kondizio beretan.

USEra aurkeztu eta gainditzen ez badute, Graduko unibertsitate-ikasketa ofizialetarako sarbidea mantenduko dute, lehenbiziko xedapen iragankor honetako lehen paragrafoaren arabera. Araudi honen 4. artikularen *g* eta *i* apartatuetan aipatzen diren ikasleentzat 5.4 artikuluan ezarritakoaren arabera ordenatuko dira ikasleak ikaspostuak esleitzeko.

Bigarren xedapen iragankorra. *USP probako fase espezifikoko irakasgaiak 2015-2016 ikasturtean gainditu zituzten ikasleak.*

2014ko ekainaren 6ko 412/2014 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoa kontuan harturik, 2016ko ohiko eta ezohiko deialdietako Unibertsitatean Sartzeko Probaren fase espezifikoa gainditutako irakasgaiak 2016-2017 ikasturtean onartua izateko aplikatu beharreko ponderazio-parametroak aplikatu behar zaizkie, soilik 2017-2018 ikasturtean Graduko ikasketa ofizialetan onartuak izateko.

Hirugarren xedapen iragankorra. *Ikasleak zer titulazio adieraz ditzakeen 2017-2018 ikasturterako aurreinskripzioan.*

2017-2018 ikasturtean graduko ikasketa ofizialak hasteko aurreinskripzioa egiten duten ikasleek, gehienez ere, sei titulazio jartzeko aukera izanen dute.

Xedapen indargabetzaile bakarra. *Arauk indargabetzea.*

Indarrrik gabe geldituko dira erabaki honen lerrun bereko edo txikiagoko arau guztiak. Bereziki, hauek geldituko dira indarrrik gabe:

- 2016ko maiatzaren 23ko Gobernu Kontseiluaren erabakia, unibertsitateko gradu

procedimiento de admisión, los criterios de valoración y el orden de prelación en la adjudicación de plazas de estudios universitarios oficiales de Grado, aprobadas por Acuerdo del Consejo de Gobierno de 23 de mayo de 2016

- El acuerdo de Consejo de Gobierno por el que se establecen los criterios para la gestión de las listas de estudiantes admitidos en el primer curso de las enseñanzas de Grado de la Universidad Pública de Navarra, de 15 de junio de 2010.

Disposición final primera. *Desarrollo e interpretación.*

Se faculta al vicerrectorado con competencia en materia de estudiantes para dictar cuantas instrucciones resulten necesarias para el cumplimiento de lo dispuesto en este reglamento.

Disposición final segunda. *Entrada en vigor.*

1. Los procedimientos regulados en este acuerdo serán de aplicación para la admisión en estudios universitarios oficiales de grado en la Universidad Pública de Navarra a partir del curso académico 2017-2018.

2. El presente reglamento será de aplicación a partir del día siguiente al de la fecha de su publicación en el Boletín Oficial de Navarra.

ikasketa ofizialetako ikaspostuak esleitzerakoan sartzeko prozedura, balioespen irizpideak eta lehentasunezko ordena onesten dituena.

- 2010eko ekainaren 15eko Gobernu Kontseiluaren erabakia, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren gradu ikasketen lehen ikasmilian onartutako ikasleen zerrendak kudeatzeko irizpideak ezartzen dituena.

Azken xedapenetan lehena. *Garapena eta interpretazioa.*

Ikasleen gaietan eskumena duen errektoreordeari ahalmena ematen zaio araudi honetan xedatutakoa betetzeko beharrezko aginduak eman ditzan.

Azken xedapenetan bigarrena. *Indarra hartzea.*

1. Erabaki honetan arautzen diren prozedurak Nafarroako Unibertsitate Publikoko graduko unibertsitate-ikasketa ofizialetan 2017-2018 ikasturtetik aurrera onartua izateko aplikatu behar dira.

2. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra araudi honek.

Este documento es de carácter informativo y no tiene valor jurídico.
Dokumentu hau informazioa emateko da, eta ez du balio juridikorik.